

## Emakumeak kooperatiben zuzendaritza eta gobernu karguetan

2007/08/05

**Emakunde**, emakume eta gizonezkoen berdintasuna esparru guztietan lortzearen alde lan egiteko sortutako erakundea da.

- Batetik, berdintasunaren aldeko herri politikak sustatzen saiatzen da
- bestetik, gizarte osoa gai horretaz sentsibilizatzen.



Testuinguru horretan, Emakundek “**NARO: berdintasunerako gunea**” urtean behingo topaketa abian jartzea erabaki zuen, hainbat erakunde, elkarte eta kolektibo emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde egiten ari diren lana biltzeko, ikustarazteko eta sendotzeko asmoz. Hortaz, NARO gunearen helburua honako hau da: eremu aberats eta emakor bihurtea, erakunde publiko eta pribatuek emakume eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko beren ekimenak kokatzeko esparru bat izan dezaten.

2004ko ekainean egin zen topaketa lehen aldiz, eta arrakasta handia izan zuen. **NARO 2006: Berdintasunerako III. Gunea** maiatzeko 8tik 26ra egingo da, eta, oraingo honetan ere, jorraturiko gaiak sei arlo nagusitakoak izango dira:

- Ekintza Positiboa eta Genero Zeharkakotasuna.
- Sensibilizazioa eta Pentsamolde Aldaketa.
- Emakumeen Aurkako Indarkeria.
- Hezkidetza.
- Ekonomia eta Enplegua.
- Pentsamendu Feminista.

Ekonomia eta Enpleguaren arloan, Oñatin kokatuta dagoen Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak, maiatzaren 11n, arratsaldeko 18:30etan “**EMAKUMEAK KOOPERATIBEN ZUZENDARITZA ETA GOBERNU KARGUETAN**” izenburupean, MCC-n egindako ikerketa baten emaitzak azalduko ditu eta ondoren, kooperatibetako zuzendaritza eta gobernu karguetan dauden emakumeekin mahai inguru bat izango da.

Saioa, irekia izango da bertaratu nahi duten pertsona guztientzat.

Interesatuak, jar zaitezte harremanetan ondoko telefono edo helbide elektronikoan Susana Azpilikuetaekin:

telefonoa: 943718009

e- poztza: [sazpilikueta@eteo.mondragon.edu](mailto:sazpilikueta@eteo.mondragon.edu)